

Zubiarte Euskaltegiko hezkuntza proiektua

1 Sarrera	2
2. Testuinguruaren analisia	2
2.1. Ikastetxearen historia	2
2.2. Titulartasuna, finantzaketa eta kudeaketa mota	3
2.3. Egungo ingurunea.	4
2.3.1 Hizkuntza-gaitasuna	4
2.3.2 Akreditazio-datuak	5
2.4. Eremuak. Eraikina	6
2.4.1 Uharteko eraikina	6
2.4.2. Kanpoko taldeak	6
2.5. Ordutegia eta egutegia	6
2.6. Ikasleak eta sarbidea	7
2.7. Ikastetxeko langileak	7
3. Nortasun ezaugarriak: Xedea, ikuspegia eta baloreak	8
4. Ebaluazioa, Autoebaluazioa eta Akreditazioa	9
4.1 Ebaluazio jarraitua	10
4.2. Autoebaluazioa	11
4.3. Akreditazioa	11
5. Ikastetxearen helburu orokorrak	12
6. Eskola antolaketa	13
6.1 Gobernu-organoak	13
6.2 Ikas-prozesuaren antolaketa	14
7. Proposamen pedagogikoa	15
8. Bibliografia	17

1. Sarrera

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) ikastetxearen erabaki eta proiektu handiei gorputza, koherentzia eta orientazioa ematen dien agiria da. Eskola-komunitateak, bere autonomiaren bidez, ikastetxe horretako osatutako hezkuntza-eredua adierazten du bertan. Ondorioz, IHP proposamen integrala eta globala da; ikastetxearen beraren ezaugarrien analisia aintzat hartuta, bere ezaugarriak, balioak, printzipioak eta helburuak zehazten ditu, eta horiek nola bete adierazten du.

2. Testuinguruaren analisia

2.1. Ikastetxearen historia

Nafarroan helduentzako euskara ikastaroak 1973an hasi ziren. Urte hartan garaiko Nafarroako Diputazioak lehenengo udako euskara ikastaro trinkoak antolatu zituen. Hainbat urte geroago Euskara Ikastaro Trinkoak sortu ziren (EIT/CIE), eta 1979-80 ikasturtean zehar eskaini ziren.

Ikastaro trinko horiek hainbat tokitan eman ziren: Escolapioetan, Hizkuntza Eskolan, Jose Vila eskolan, Canossianetan, Miguel Astrain kaleko solairu arteko batean, Sanduzelai auzoan... Antzeko zerbait gertatu zen Irakasleentzako Birziklapen Ikastegiarekin; hauek ere Jose Vila eta San Frantzisko eskoletan ibili ziren, harik eta, bi euskaltegi publiko horien batasuna egin eta Uharte herrira joan arte. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Uharteko Udalarekin elkarlanerako hitzarmena sinatu zuen 2001ean. Horren ondorioz, Uharteko Udalak Hezkuntza Departamentuaren esku utzi zuen Miravalles eskolaren eraikin nagusia 2022ko urtarrilera arte, bertan Zubiarte Euskaltegia eta EIBZ kokatzeko.

Egokitzapen lanak egin ondoren, 115/2002 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, onetsi egin zen. Haren bitartez Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bi zentro hauek antolatu zituen: Helduak Euskalduntzeko Ikastegia eta Euskararen irakaskuntzarako Baliabide Zentroa. Hori eginda, hezkuntza egiturak bereizi eta horretarako langileak esleitu ziren. Jarraian, Gobernuak onetsi zuen 365/2002 Foru Agindua, uztailaren 5ekoa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Nafarroako Gobernuko

Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren mendeko "Zubiarte Euskaltegia" helduak euskalduntzeko Ikastegi Publikoaren antolamendu eta funtzionamendurako Erregelamendua onesten duena. Sortu berri zen Ikastegia Miluze euskaltegiko irakasleek eta Hezkuntza Departamentuko IBI (Irakaslegoarendako Birziklapen Ikastegia)-ko irakasleek osatu zuten.

365/2002 FORU AGINDUan jasotzen denez, modu osagarrian, ondoko arau hauek ezarriko dira: 255/1999 Foru Dekretua, uztailaren 6koa, Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntza arautu eta irakaskuntza horien egitura eta berariazko curriculum Nafarroako Foru Komunitatean ezartzen dituen, eta 295/1999 Foru Agindua, abuztuaren 24koa, Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntzari dagozkion irakaskuntzen ezarpena arautu eta Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan 1999/2000 ikasturtetik aitzina irakaskuntza horiek egiten dituzten ikasleak ikastetxe horietan sartu eta matrikula egiteko jarraibideak ematen dituen.

Era berean, honako arau hauek ere haren osagarri dira: 24/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Haur Hezkuntzako eskola publikoen, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoa onesten duena, eta Foru Dekretu hori garatzen duten xedapenak.

2.2. Titulartasuna, finantzaketa eta kudeaketa mota

Zubiarte Euskaltegia Nafarroako Hezkuntza Departamentuko ikastetxe publikoa da.

365/2002 FORU AGINDUaren 4. artikuluan jasotzen denez (Ikastegiaren autonomia pedagogikoa eta kudeaketa autonomia), "Zubiarte euskaltegia" helduak euskalduntzeko Ikastegi Publikoak, ikastetxeak antolatzeko arautegian ezarri bezala, antolamendu eta pedagogia mailako kudeaketa eredu finkatzeko autonomia du. Eredu hori zehaztuko da curriculum proiektuan eta hura garatzen duten programazioetan, urteko programazio orokorrean eta barne-araudian.

2.3. Egungo ingurunea

2.3.1 Hizkuntza-gaitasuna

Nafarroako Foru Komunitatea hiru eremutan banatzea ezartzen du Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak, eta eremu bakoitzeko biztanleek erabiltzen duten hizkuntza da banaketa-irizpidea: eremu euskalduna Nafarroako iparraldean dago, eremu mistoa erdialdean (Iruñea barne), eta eremu ez-euskalduna Foru Komunitateko erdialdean eta hegoaldean.

Zubiarte Euskaltegia Nafarroako Uharte herrian dago, zonalde mistoan.

Nafarroako Estatistika Erakundeak emandako datuen arabera, 2015ean Nafarroak 640.476 biztanle ditu. Biztanleriaren erdia baino gehiago, %57, eremu mistoan bizi da eta, joera ikusirik, handitzen segituko du.

2018ko datuen arabera, Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 60,8 euskal hiztuna da eremu euskaldunean, % 12,4 eremu mistoan eta % 2,6 eremu ez euskaldunean. Azken urteotan eremu mistoan izan du hazkunderik handiena euskararen ezagutzak.

Biztanleriaren datuak hizkuntza-gaitasunaren arabera:

	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez euskalduna
Euskaldunak	60,8	12,4	2,6
Euskaldun hartzaileak	10,7	9,4	3,8
Erdaldunak	28,6	78,2	93,6

Iturria: Nafarroako Datu Soziolinguistikoak 2018. Euskarabidea.

Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko emakumeen % 13,5 da euskalduna eta % 8,2 euskaldun hartzailea. Gizonen artean % 14,7 euskalduna da eta % 7,8 euskaldun hartzailea. Hala bada, sexua ez da euskararen ezagutzaren aldagi esanguratsua.

Adinaren aldagiak, aldiz, biziki eragiten dio Nafarroako biztanleriaren euskararen gaitasunari. Adin tarte zenbat eta gazteagoa izan, euskaldunen portzentajea orduan eta handiagoa da:

	euskaldunak	euskaldun hartzaileak	erdaldunak
65 edo gehiago	% 8,4	% 2,3	% 89,3
50-64	% 10,9	% 9	% 80,1
35-49	% 14,1	% 10,3	% 75,6
25-34	% 21,8	% 9,6	% 68,6
16-24	% 24,9	% 9,6	% 65,5

Iturria: Nafarroako Datu Soziolinguistikoak 2018. Euskarabidea.

2018 datuen arabera, euskaldunen eta euskaldun hartzaileen artean, hau da, euskara ongi edo zerbait dakiten 16 urteko eta urte gehiagoko nafarren artean %35,3k du egiaztapenen bat.

	osotara %	sexuaren arabera	
		Gizonak	Emakumea
A1 edo A2	4	3,3	4,7
B1 edo B2	15	13	17
C1 edo gainekoa	16,3	13,5	19,1
Ez du egiaztapenik	64,7	70,2	59,2

Iturria: Nafarroako Datu Soziolinguistikoak 2018. Euskarabidea.

2.3.2 Akreditazio-datuak.

Euskara jakitearen egiaztatzea adinaren arabera azterturik, honakoa ikusten da: biztanleria gazteagoak bere euskararen ezagutza egiaztatzen du neurri nabarmen handiagoan.

	A1 edo A2	B1 edo B2	C1 edo gainekoa	Ez du egiaztapenik
50 urtekoak edo gehiagokoak	2,4	6,4	7,5	83,8
35-49 urtekoak	3,2	15	18	63,3
25-34 urtekoak	5,5	19,9	25,6	49
16-24 urtekoak	6,3	27,9	21,2	44,6

Iturria: Nafarroako Datu Soziolinguistikoak 2018. Euskarabidea.

2.4. Eremuak. Eraikina

Zubiarte Euskaltegiko klaseak Uharteko eraikinean ez ezik, beste hainbat tokitan ere ematen ditu eskolak. Azken hauei “kanpoko taldeak” esaten zaie.

2.4.1 Uharteko eraikina

Beheko solairuan Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ) dago. Zubiarte eta EIBZ bi zerbitzu diferente dira. Euskaltegia Hezkuntza Departamentuko ikastetxea da; EIBZ, berriz, baliabide zentroa. Biok Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuan daude, biek harremana zuzena dute Zerbitzu horren barruan dagoen Euskara Atalarekin.

Euskaltegiak EIBZrekin hainbat esparru konpartitzen ditu eraikinean (liburutegia, komunak, pasabideak, informatika gela, hainbat ikasgela).

2.4.2. Kanpoko taldeak

365/2020 Foru Aginduak zehaztu bezala, Euskaltegiak kanpo taldeak izaten ahal ditu. Udaletako Euskara teknikariek eta eskoletako guraso elkarteek Zubiarte Euskaltegira eskaera egin eta ikastaldea sortzeko aukera aztertuta ondoren, klaseak onartutako tokietan ematen dira.

2.5. Orduategia eta egutegia

Eskola egunetan eraikina goizeko 7:30ean ireki eta gaueko 22:00ak arte egoten da irekita astelehenetik ostiralera.

Egutegia Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako zuzendari nagusiak ematen dituen jarraibideen bidez osatzen da. 365/2002 Foru Aginduan jasota dagoenez, ikasturtea irailaren 1ean hasi eta ekainaren 30ean bukatuko da. Ikasturtea ez da 160 eskola-egun baino laburragoa izaten. Epe horretatik aparte, euskaltegiak ikastaroak antolatzeak aukera du.

Kanpo taldeetan, lehenengo eskola eguna urriaren 1ean izaten da eta maitzaren 31n azkena.

2.6. Ikasleak eta sarbidea.

Zubiarte Euskaltegian izena emateko gutxieneko adina 16 urtekoa da.

Nafarroa Garaiko ikasleak etortzen dira Uharteko euskaltegi publikora. Horretaz gain, Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioko irakasleen euskarazko planaz arduratzen da Zubiarte. Euskara Atalak ateratzen du urteroko prestakuntza plana eta Hezkuntzako irakasleak Euskaltegiko ohiko taldeetan sartzen dira ikasle, nahiz auto-ikaskuntzan nahiz talde presentzialetan. Euskaltegiak arautzen duen Foru Aginduan ikastetxeetan ere taldeak irekitzeko aukera jasotzen du bertako irakasleekin talde bat osatuz.

Zubiarte Euskaltegiak urteko hiru momentutan egiten du matrikula:

- 1.- Ekainean: Hurrengo ikasturtean izanen diren taldeak erabakitzeko balio duen matrikula.
- 2.- Abuztuaren bukaeran / irailaren hasieran: ekainean sortu diren edo sortzeko bidean dauden taldeak osatzeko.
- 3.- Urtarrilean: Taldeetan dauden hutsuneak betetzeko eta, aukera izanez gero, talde berriak sortzeko (gehienetan A1 mailan)

Matrikula online zein aurrez-aurre egiteko aukera ematen du Euskaltegiak. Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Foru Agindu baten bidez Hezkuntza Departamentuaren menpeko derrigorrezkoa ez diren ikasketen tarifak finkatzen ditu urtero. Foru Agindu honetan Zubiarte Euskaltegiko tarifak onesten dira.

2.7. Ikastetxeko langileak

Hezkuntza komunitateko langileak honako hauek osatzen dute:

- *Irakasleak.* Nafarroako Gobernuak langileak dira eta Hezkuntza Departamentuari dagokio horren kudeaketa.
 - Funtzionario finkoak: Nafarroako Gobernuak euskaltegiko plantilla zehazten du.
 - Behin-behineko irakasleak. Euskaltegiak aldi baterako kontratazioak egiteko berariazko zerrenda du eta horren bitartez kudeatzen da kontratazioa. Bestelako zerrendetatik ere etortzen dira aldi baterako irakasle kontratatutak.

- *Administraria*. Euskaltegiko plantilla organikoan. Lanaldi osoan ari da.
- *Atezainak*. Bi atezain Euskaltegiko plantilla organikoan eta lanaldi osoan.
- *Lan anitzetarako langilea*. Berez, plantilla organikoan ez izanagatik, tarteka Euskaltegiko konponketa txikiak hartzen ditu bere gain.
- *Garbiketako langileak*. Nafarroako Gobernuak garbiketa esleitu ondoren, enpresa pribatu bateko langileak dira.

3. Nortasun ezaugarriak: Xedea, ikuspegia eta baloreak

Zubiarte Euskaltegi Publikoa Nafarroako Hezkuntza Departamentuko ikastegi autonomoa da; haren jardun eremu hurbila Iruñerria da, baina Nafarroa osoko jendea euskalduntzea du helburu, Nafarroatik kanpoko ikasleak artatzeari uko egin gabe; Jendartea euskalduntzea eta euskararen erabileraren normalizazioa lantzea du helburu. Nafarroakoa propioa den hizkuntzaren balio historiko eta kulturaren ezagupena, onarpena eta transmisio biziaren alde egiten du lan.

Ikuspegiari dagokionez, kalitatezko ikastetxea izatea nahi dugu, euskararen irakaskuntza erreferente garbia. Irakaskuntza aurrera eramateko pedagogia egokian eta teknologietan trebatua dagoen irakasle-klaustroa duena.

Helduen euskalduntzea helburu duen ikastetxea izanik, ikaslearen komunikazio-gaitasuna garatzera bideratuko du haren irakaskuntza, ikasprozesuaren amaieran maila bateko zein besteko erabiltzaile bilakatzen. Horretarako, curriculumean Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoaren oinarri psikopedagogikoen baitan, ekintza komunikatiboa oinarri harturik, ikuspegi komunikatiboa, soziokonstruktibista eta ekintzara bideratutakoa hobetsiko da. Aniztasun kulturala eta ideologikoa aintzat hartuz, berezko nortasun linguistikoa sustatu eta ikasleak modu integral eta harmonikoan prestatuko duen ikastetxea izatea nahi dugu.

Helduak euskalduntzea helburu duen ikastetxe honek balore nagusien laburpena: bai oinarrizko giza-trebetasunak, bai trebetasun emozionalak lantzen duen euskaltegia izatea nahi dugu, autokontrola, autoestimua, frustrazioaren aurrean

jarraikitasuna eta auto-motibazioa lantzen duena. Eskola giroa zein harreman onak izateko, elkarbizitza garatzen duena, irakasleak ikasleen aniztasuna kudeatzen dakiena, materialetan, jardueretan eta irakasleen jarreretan berdintasuna lantzen duena eta genero ikuspegia duena. Hitz gutxitan esanda, hezkuntza etapa hau atsegin, solidario, inklusibo, hezkidatzailea, partehartzailea eta berriztatzailea izatea nahi dugu.

4. Ebaluazioa, Autoebaluazioa eta Akreditazioa

Ikaste- eta irakaste-jarduera orotan ebaluazioa dago presente, prozesua era zabalean ebaluatzen delako, baina ez beti nahita edota modu kontzientean eginda; ebaluatzeak planifikazioa eskatzen baitu: une jakin batean zer datu jaso nahi diren halako informazioa iristeko, zer balioespen egin daitekeen jasotako informazioaren azterketatik, eta zer erabaki har daitekeen balioespen horretan oinarrituta. Alegia, erabaki behar da zer lortu nahi den (datuak → informazioa → ezagutza), nola gauzatuko den (estrategiak eta erremintak) eta noiz burutuko den (aitortu zaion funtzioaren arabera), ebaluazioa baliagarri izan dakien ikasleari eta irakasleari helburu dutena lortzeko.

Horrela, giltzarri bilakatzen da ebaluazioa, ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren eremuan, jarduera hezitzailea berritzeko. Izan ere, eragin zuzena du, bai helburuetan, bai edukietan, bai metodologian eta, zer esanik ez, ebaluazioan bertan. Izaera horrek eskatuko du, emaitzez gain, diseinua, prozesuak eta testuingurua bera ere ebaluatzea.

Emaitzak ezagutzeaz gain, badu ebaluazioak beste balio nagusi bat: formatiboa; jasotako informazioan oinarrituta, gerora indarrean jarriko den ikaste- eta irakaste-prozesuari orientabideak eskaintzea. Alegia, gauzatutakoaren ebaluazioa, lehena, eta gauzatuko denari begirakoa, bigarrena.

Ebaluazioa bera modu zabalean ulertu behar dugu euskaren irakaskuntzan. Lau ardatz ditu:

- Hasierako ebaluazioa. Maila ezagutzen ez dutenen ikasleen kasuan, sarrera elkarriketa egin behar dute. Behin kurtso hasita, irakasle-tutorek taldearen maila behatu egiten du, eta ikasleei aholka diezaieke beste talde batera pasatzea, haren ikas-prozesuari hobeki datorkiona.

- Ebaluazio jarraitua. Ikaslearen prozesuari jarraitu eta ebaluatu egiten duena. Euskaltegiak hori egiteko baliabideak finkatu behar ditu eta ikasleek horiek ezagutu behar dituzte.
- Autoebaluazioa. Ikasleak berak bere ikas-prozesuaren jabe izan behar du. Euskaltegiak hori bideratzeko bitartekoak txertatzen ditu, hala nola, ikas-unitateetan.
- Akreditazioa. Ikasleak erdiesten duen maila modu ofizialean jasotzeko agiria. Ikasleak proba horien inguruko informazio zehatza jasotzen du.

Euskaltegiak zuzentzeko eta kalifikatzeko erabiltzen dituen irizpideak publikoak dira eta ikasleen eskura jartzen ditu.

4.1 Ebaluazio jarraitua

Zubiarte Euskaltegian izena ematen duen ikaslea dagokion mailan kokatzen da. Horretarako kontuan hartzen da ikas-prozesuan emandako ibilbidea (euskaltegian nahiz beste ikastetxe batean), edo matrikula garaian egiten zaion sarrera-elkarritzeta.

Ikasleak honako mailetan kokatzen dira: A1, A1+, A2, B1, B2, C1, C1/EGA mailetan.

Zubiarte Euskaltegiko ikasleen kasuan, ikasturtearen bukaeran irakasle tutoreak ikaslea zein mailatan dagoen utziko du islatua haren txostenean eta “domina” ezarriko du hori adierazteko. Bertan dagoen informazioa baliatuko da maila batean edo bestean kokatzeko.

Matrikula lehen aldiz egiten duten ikasle berrien kasuan, edo zein maila ez dakiten ikasleen kasuan, sarrera-elkarritzeta egiten zaie matrikula garaian.

Behin ikasturtea hasi, eta ondoren, lehenengo bi asteetan irakasleek begiratzen dute ikasleak dagozkien mailan matrikulaturik dauden eta behar den kasuetan

egokitzapenak egiten dira. Berez, euskaltegiaren lehen zeregina ikaslearen gaitasuna azaleraztea da: jakin zein diren harrera-estrakturak (aurretiko ezagutzak eta eskarmentua, ikasketari buruzko jarrerak eta ohiturak, estrategiak eta atazei begirako irudikapenak). Ebaluazio diagnostikoa, ikaslea baitu sistemak ardatz.

Irakasle tutoreak, ikaslearekin hitz egin eta gero, erabakitzen du zein ikasle pasatzen den hurrengo mailara. Ez da beharrezkoa akreditazio probetara aurkeztea eta azken hau gainditu ez izana ez da oztopo aurrera egiteko.

4.2. Autoebaluazioa

Autoebaluazioa eta koebaluazioa dira ebaluazio motarik hezitzaileenak, ikasprozesuan ardazten direlako, ikasten ikasteko gaitasuna areagotzen dutelako eta areagotu egiten duelako ikaslearen ahalmena ikasprozesuaren ardura hartzeko. Elkarreragin zuzena eskatuko du ikasleen eta irakaslearen artean. Izan ere, ikasleari hitza ematen zaio, baina bermatu behar da ebaluatzeko irizpideak izango dituela (esplizituak eta operatiboak) eta prozedura jakinak, ebaluazioak zentzu osoa izan dezan eta ikaslearen motibazioan eragin. Zer ebaluatu, nola, zeren arabera eta arrakasta-irizpideak.

4.3. Akreditazioa

30/2011 Foru Aginduak, otsailaren 28koa, Hezkuntza Kontseilariarena, hizkuntzen jakite maila egiaztatzen duten titulazioak eta ziurtagiriak ezartzen dituenak Zubiarte Euskaltegiak akreditazio probak antolatu eta ziurtatzeko eskumena jasotzen du.

Zubiarte Euskaltegi Publikoak A1, A2, B1 eta B2 mailetako euskararen gaitasuna egiaztatzeko probak antolatzen ditu. Egiazttagiriak Nafarroako Gobernuak ematen ditu eta balio ofiziala dute Nafarroan. Euskal Autonomi Erkidegoan balioztatzea bideratzen ari da.

Aipatu 30/2011 Foru Aginduak "Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan C1 mailaren azterketa gainditu izanaren ziurtagiria" emateko aukera jasotzen du. Zubiarte Euskaltegiak ikas-prozesu osoa ziurtatzeko ahalmena du.

A1 eta A2 mailetan deialdi bakarra da, ekainean. B1 eta B2ko azterketak ekainean eta irailean dira. Ikasleek nola eta noiz eman izena Euskaltegiak urtero zehaztuko du eta ikasleei jakinarazten die. Era berean, Euskaltegiak azterketaren ezaugarriak, ebaluazio eta kalifikazio irizpideak publiko egiten ditu.

Ekainean edo/eta irailean probetara aurkeztu ahal izateko ikasturtean matrikulaturik izatea da baldintza. Ikasleak berak aukeratzen du zein mailatako proba egin nahi duen, baina kontuan hartu behar du ezin duela proba bat baino gehiago egin.

Proba dohainik eta boluntarioa da. Hala ere, irakasleak erabakiko du hurrengo mailara pasatzea ala ez. Azterketa ez da irizpidea mailaz pasatzeko.

5. Ikastetxearen helburu orokorrak

Helburu nagusia da Nafarroako biztanleak euskaltegira etortzea eta euskalduntzea. Halaber, honako helburuak ere baditu:

- Euskararen irakaskuntza, zabalkuntza eta normalizazioa sustatzea
- Alfabetatze beharrei erantzutea.
- Nafarroako Euskalkiak ezagutaraztea eta bultzatzea
- Ikasleen hizkuntza-premiak aztertzea eta premia horiei erantzutea.
- Ikaslearen aurrerabidea sustatzen duen ikasprozesu koherente eta egokia izatea.
- Eskola-eskaintza egokia ematea ikasleen behar eta aukeren arabera.
- Euskararen erabilera sustatzen duen pedagogia-lerroa izatea.
- Inguruak ematen dituen baliabideak egoki erabiltzen dakien euskara-ikasle independenteak lortzea.
- Euskararen mailak zertifikatzea.

6. Eskola antolaketa

6.1 Gobernu-organoak

365/2002 Foru Aginduan jasota daude Ikastegia kontrolatzeko eta kudeatzeko gobernu organoak eta parte-hartze organoak:

6.1.1 Lagun bakarreko gobernu organoek ikastegiko zuzendaritza taldea osatzen dute.

Euskaltegiak lagun bakarreko gobernu organo hauek ditu: zuzendaria, idazkaria, ikasketaburua eta, kasua bada, zuzendariordea eta alboko ikasketaburua izateko aukera du.

6.1.2 Eskola kontseilua

Eskola kontseilua hezkuntza elkarteko kideek ikastegia kontrolatzeko eta kudeatzeko lanetan parte hartzeko organoa da.

Eskola kontseiluko kideak honako hauek dira: Ikastegiko zuzendaria, Hezkuntza Departamentuko ordezkari bat, Ikasketaburua, Klaustroak hautatutako bi irakasle, Ikasleen bi ordezkari, Administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat eta Ikastegiko idazkaria, eskola kontseiluko idazkari izanen dena.

6.1.3 Irakasle klaustroa

Ikasturtean lanean diharduten irakasle guztiak dira klaustroko kideak.

6.1.4 Didaktika taldeak

Didaktika taldeak maila akademiko berari edo euskara irakasteko berariazko programa bati atxikitako irakasle lantaldeak dira. Horien buru taldeko koordinatzailea da. Didaktika taldeak astero elkartzen dira.

Didaktika taldeei dagokie haien mailari dagozkion irakaskuntza jarduerak egitea. Horien artean azpimarratzekoak dira mailako eta ikasgelako programazio didaktikoak prestatzea, horiek ikasturtean betetzen ari diren aztertzea eta ikasturte bukaerako memoria prestatzea. Halaber, akreditazio probak prestatzea ere bai.

6.1.5 Koordinazio Pedagogikorako Batzordea (KPB)

Koordinazio pedagogikorako batzordeko kideak honako hauek dira: zuzendaria, batzordeburu dena, ikasketaburua eta didaktika taldeetako koordinatzaileak

Koordinazio Pedagogikorako Batzordea hilean behin biltzen da, gutxienez. Ikasturtearen hasieran bilerak egiten ditu curriculum proiektua prestatu eta berrikusteko. Era berean, ikasturterako jarduerak planifikatzen ditu. Hori guztia sartzen da, gero, urteko programazio orokorrean.

Ikasturtea bukatu ondoren, batzordearen beraren funtzionamenduaren gaineko txostena egiten du. Txosten hori ikasturte bukaerako memorian sartzen da.

6.2 Ikas-prozesuaren antolaketa

Zubiarte Euskaltegiak modalitate hauek eskaintzen ditu: aurrez-aurrekoa, auto-ikaskuntza, eta online. Bai Euskaltegian bertan, bai kanpo-taldeetan ere. Horretaz gain, berariazko ikastaroak eskaintzeko aukera du, hala nola, mintza lantzeko ikastaroa. Barnetegia ere antolatzeko aukera du.

Euskaltegiak, txandaka etortzeko aukera ematen die ikasleei, beti ere horretarako baldintzak betetzen badira.

Zubiarte Euskaltegiaren eskaintza egungo gizartera eta ikasleen beharretara moldatzen da, eta, ondorioz, Euskaltegiak urtero berrikusi egiten du.

Euskaltegiak Europako Erreferentzia Marko Bateratuak ezarritako mailak eskaintzen ditu: A1, A2, B1, B2, C1.

A1 eta A2	Oinarrizko erabiltzailearen maila
B1 eta B2	Erabiltzaile independentearen maila
C1	Erabiltzaile gaituaren maila

Maila hauetan azpimailak egiten ahal dira, bereziki A1 mailaren barruan: A1 maila hastapena eta A1+, maila aurreratua. C1 mailan ere, EGA edo C1 azterketa prestatzeko berariazko taldea edo azpimaila antolatzen du Euskaltegiak.

Euskaltegiak bere ikasketa plana aditzera emanen die ikasleei eta web orriaren bidez publiko egingen du: mailen definizioa eta hauei dagozkien helburuak.

7. Proposamen pedagogikoa

Zubiarte Euskaltegiak bere egiten du Europako Markoaren arabera sortu den HEOC-ek zehazten duen ildo metodologikoa.

Ikaslearengan eta ikasprozesuan ardaztutako curriculum batean metodologia osotasun bakarraren zati bat besterik ez da, ikuspegi, helburu, eduki eta ebaluazioarekin batera.

Curriculum hau axioma honetan oinarritzen da: “hitz egitea hitzen bidez gauzak egitea da, eta eginez ikasten da egiten”. EGIN da axioma horretan hitz gakoa. Egitea da helburua. Hona helburu nagusia, beraz: ikasleak zerbait egitera heldu behar du ikasprozesua amaitzean. Eta axioma eta helburu horren eragile nagusia, berriz, ekintza komunikatiboa da. Izan ere, gaitasun komunikatiboa ekintza komunikatibotan gauzatzen da.

Ildo metodologiko nagusiak:

1. Curriculumak bi ikuspegi nagusi izan behar ditu: ikuspegi komunikatiboa eta ekintza-ikuspegia. Beraz, ikasprozesua xede-hizkuntzaren erabileran oinarrituko da, betiere, ikasleentzat beharrezko eta interesgarriak diren ekintzen erabileran.

Ikasprozesuan

- ikas-estrategiak eta estrategia komunikatiboak baliatuko ditu ikasleak;
- lau hizkuntz trebetasunen garapena integratuko da;
- ekintzak testuinguru jakin batean landuko dira;
- ikasleak ekintza gauzatzeko beharrezko dituen baliabide linguistikoak eskuratzea bideratuko da ikasprozesua.

2. Ahozkoaren zein idatziaren ulermen- eta ekoizpen-ekintzak xede edo funtzio jakin batekin gauzatuko dira.

3. Baliabide linguistikoak gauzatu beharreko ekintza komunikatiboaren baitan eskuratuko dira.

4. Ikasgelako dinamikak ikasleen zein irakasle-ikasleen arteko elkarreragina bultzatuko du, eta ezinbestekoa izango da harreman-sarea, lan-giroa, lankidetzak, enpatia, begirunea eta interesa sortzea.

5. Ikaslearen interes eta behar komunikatiboetatik abiatuz, ikaslea, batez ere, bide inductibotik jardutera bideratuko da. Horretarako, garrantzitsua da egoera komunikatiboa sortzea, xede-hizkuntzan zer baliabide diren ezinbesteko zehaztea, baliabide horiek zenbait testutan aurkitzera bideratzea eta horiek landuz behar komunikatiboa asetzea.

6. Lan-modu honek ikasten ikastea ahalbidetzen du. Irakasleak ikasestrategia eta komunikazio-estrategiak erabiltzera etengabe bultzatuko ditu ikasleak, komunikatzera animatuz, bideratuz eta baliabideak eskainiz.

7. Ikas-jarduera ekintza komunikatibotan antolatzea lehenetsiko da. Aukeratutako ekintza izango da abiapuntu eta helburu, unitate edo sekuentzia didaktikoa antolatzeko, eta horren baitan aukeratuko dira beharrezko diren baliabide linguistiko, testual, estrategiko eta abar. Honako sekuentzia hau antola daiteke:

- Ekintza komunikatiboaren aukera eta motibazio-aldia.
- Azken ekintzaren zehaztapena.
- Helburuak definitzea (zer jakin eta ikasi behar da ekintza gauzatu ahal izateko?).
- Edukiak zehaztea: soziolinguistikoak, testualak, linguistikoak eta estrategikoak.
- Eduki soziokulturalak erabakitzea (gaia, alderdi kulturala).
- Ebaluazioa eta autoebaluazioa.
- Materiala: ahozko testuak eta testu idatziak; ikasliburuak; material digitala...
- Iraupena aurreikustea.

8. Curriculumetik erator daitezkeen ikasliburuak eta materialak zabalkunde-elementu gisa hartu behar dira, eta izan dezaketen edozein izaera preskribatzailetatik urrunduz, curriculumean ezarritako irizpideetara eta ikastaldera egokituko dira.

9. Ebaluazioa curriculumaren helburu, eduki eta ikuspegiarekin bat etorriko da. Irakasleak, autoebaluazioa bultzatzeaz gain, informazioa etengabe jasoko du ikastaroan zehar, eta horren berri emango dio ikasleari, horrek bere aurrerabidea balioetsi eta aztertu dezan.

10. Maila baten amaieran ikasleak bere gaitasun komunikatiboa egiaztatzerik izango badu ere, horrek ez du baldintzatuko ikaslearen motibazioa. Ikasprozesuaren helburua xede-hizkuntzan komunikazio gaitasuna areagotzea izango da.

8. Bibliografia

- [365/2002 FORU AGINDUA](#), uztailaren 5koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren mendeko "Zubiarte euskaltegia" helduak euskalduntzeko Ikastegi Publikoaren antolamendu eta funtzionamendurako Erregelamendua onesten duena.
- Ikastetxeen hezkuntza proiektua egiteko gida. Eusko Jaurlaritza. [info+](#)
- Hezkuntza proiektua eta proposamen pedagogikoa Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko ikastetxeetan prestatzeko gida. Nafarroako Gobernuak. [Info+](#)
- [42/2011 Foru Dekretua](#), maiatzaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitateari helduei euskara irakasteko curriculumak ezartzen duena.
- Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumak ([HEOC](#)).
HABE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea
- [30/2011 Foru Agindua](#), otsailaren 28koa, Hezkuntza Kontseilariarena, hizkuntzen jakite maila egiaztatzen duten titulazioak eta ziurtagiriak ezartzen dituena.
- Euskararen egoera Nafarroan. Euskarabidea. [Info+](#)
- Nafarroako Datu Soziolinguistikoak 2018. Euskarabidea. [Info+](#)
- Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019). Euskarabidea. [Info+](#)

Uharten, 2021eko martxoan onetsita.